

DIRU-ITURRIAK

Prezio motak: Gure produktu berria denez, prezio finkoa ezarriko genioke, zehazki audifono bakoitzarengatik, 450€. Baina kontuan hartuko genituzke etorkizunera begira aldaketak egin beharko balira. Etorkizunean merkatuan konpetentzia sartzen bada, prezio aldaketa bat egin beharko genuke.

Prezioa finkatzean, orainari dagokionez, produktua sortutako dagoen ezaugarriak kontuan hartuko genituzte, adibidez, zein materialez dagoen sortua (gure kasuan plastiko aurremoldekatua, polimeroak, metala eta karbonoa). Argi dago, material batzuk eskuratzeko zailagoak direla eta balio gehio dutela, beraz, hauei prezio handiagoa ipiniko zaie. Orokorrean famili guztiei zuzentzen zaio produktua, beraz, prezio estandarra da finkatuko zaiona.

Audifonoak saltzerakoan, ez genituzke beharpenak aplikatuko. Gure produktuak funtsezko premia bati erantzuten dio eta ez da kontsumo hutseko artikulu bat. Horregatik, iruditzen zaigu ez duela zentzurik beharpenik aplikatzea. Hori dela eta, audifonoen ordainketa egiterakoan erreztasuna eskainiko genieke bezeroei, epe luzean kuota baten bidez ordaintzeko ahalmena edukiko baitute (6 hilabeteetan kuota ordainduz).

Hau dena kontuan hartuta, gure bezeroei mantenimenduaren zerbitzua eskainiko genioke. Hau da, bezeroek gure produktua erosterakoan, urtero audifonoaren rebisioa egiteko aukera edukiko lukete. Lehen urtean, doainik izango litzateke baina urteak joan ahala, mantenimenduak kobratzen hasiko ginatke, urtetik-urtera 50€ -koa izanik.

Gure produktua martxan jartzeko, bankuari mailegu bat eskatuko genioke. Gaur egun, gazteentzako baldintza egokian dagoen mailegu bat eskaintzen du bankuak, zehazki, ekintzaile berrientzako. Horregatik, gure enpresa martxan jartzeko mailegu bat eskatzen hasiko ginatke.



Guk sortu behar dugun produktua berria denez, edozein enpresak nahiko luke gure audifonoaz baliatu horiek saltzeko. Horregatik, patente bat egingo genuke, non bertan eskubidea emango diogun, momentuz, enpresa bati, zehazki GAES enpresari gure pinganilloak saltzeko.

